



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO IRAILAREN 27AN BASABURUKO UDALAK **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko Irailaren 27an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Alaia Arano, Javier Auza, Iker Isiegas, M^a Mar Ansorena, Micaela elizalde

Bertaratu dira baita ere Iñaki Lopez eta Isabel Iarregi Berueteko eta Itsasoko kontzejuko alkateak hurrenez hurren.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Abuztuaren 31eko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

2.- Alkate ebazpenak

-2023/96 alkate ebazpena: onartu aitorpen arduratsua Felix Beunza Larumbek aitorpen, Ihabengo 3. Poligonoko 14. Lursailean dagoen etxearen teilatu hegalaria tratamendua emateko.

-2023/97 alkate ebazpena obra baimena eman Luisa Arano Lampreaberi Berueteko 11. Poligonoko 383. Lursailean dagoen etxean tximinia eta estufa jartzeko .

-2023/98 alkate ebazpena obra baimena eman Arrarasko kontzejuari iturriaren ingurunean aterpea egiteko.

-2023/99 alkate ebazpena onartu aitorpen arduratsua Agustin Beloquik Itsasoko 36. Lursailean dagoen etxearen mendebaldeko fatxada margotzeko.

-2023//100 alkate ebazpena aurrekontua onartu, :Niebla empresak batzordeetako email helbideak egieko.

-2023/101 alkate ebazpena obra baimena onartu, Beatriz Alsuari Olako 8. Lursaileko etxebizitzan leihoak aldatzeko.

-2023/102 alkate ebazpena barreiatuetan dagoen abere ustiapenen izenen zerrenda onartu, helpbidea zenbakia emateko.

- 202.3/103 alkate ebazpena Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko baimena eman Irati Mundunateri pilates eta ballet ikastaroa emateko astearte, ostegun eta larunbatetan

- 2023/104 alkate ebazpena Aizarozko Kultur etxeko areto nagusa erabiltzeko baimena, Ultzamako gizarte zerbitzuen mankomunitateari urriaren 1ean scape room egiteko.

2023/105 alkate ebazpena obra baimena eman Kasimir Ikatategiri Igoako 213. Lursailean dagoen etxebizitzan leihoak aldatzek

Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

3.-Udaleko kontuetako ahaldunak izendatu.

Legealdi aldaketarekin bankuko kontuetako ahaldunak ere aldatu behar direla aipatzen du.

Udalak 3 banketxetan du kontua, Caixa, Rural kutxan eta Laboral kutxan.

Bildutakoek aho batez onartzen dituzten udaleko ondoren zehazten diren ordezkariak izendatzea bankuetako kontuetarako ahaldunak.

Santos Etxegia Oronoz 29142933R NAN zenbakiduna

Micaela Elizalde Elizalde 15846821M NAN zenbakiduna

Lucia Beloqui Iriarte 44634162V NAN zenbakiduna , udaleko idazkaria den aldetik

Erabaki hau bankuetara helaraziko da aldaketa egin dezaten.

4.- Basaburuko iharduera ekonomikoen guneko lursailen esleipena.

Nafarroako Toki Administrazioako 1990/6 Foru Legearen 132. Artikuluak agintzen duen bezala, lursailen esleipena egiteko prozedura batzarrak onartu behar du, gehiengo osoz.

Aipatutako artikuloak adierazten du ondorengo:

“Toki-erakundeen ondasunak besterentzeko, alde zuzenik besterengarritasun-adierazpena egin behar da, jatorriz ondare-ondasunak direlako edo jatorrizko kalifikazio juridikoa aldatzeagatik izaera hori hartu dutelako.

Besterentzeko, toki-erakundearen osoko bilkuraren edo gobernu- eta administrazio-organo gorenaren erabakia behar da. Besterendu beharreko ondasunaren zenbatekoa aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko hogeitau baina handiago bada,

korporazioko legezko kideen gehiengo osoz hartu beharko da erabakia.

Hala ere, korporazioko lehendakariak toki-erakundearen helburuak betetzeko beharrezkoak ez diren ondasun higigarriak eta higiezinak besterendu ahal izango ditu, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko bost gainditzen ez duenean.

Ondasunak besterendu aurreko baldintza izango da ondasunon balioespen teknikoa, balio justua modu frogagarrian egiaztatzen duena.

Ezin izango da ondare-ondasunik besterendu gastu arruntak finantzatzeko, salbu eta lurzati soberakinak edo efektu ez-erabilgarriak direnean.”

Hortaz bildutakoek aho batez eta gehiengo osoz, onartzen dute, Basaburuko iharduera ekonomikoen gunean sortuko diren lursailen esleipena prozedura, eta kontutan hartuta aipatutako artikuloa esleipen prozedura martxan jartzeko baimena eskatzea Nafar Gobernuko Tokiko Zuzendaritza Orokorrari, esleipenera ateratzen diren lursailen balioa, aurrekontuaren sarrera arrunten %20a baino gehiago izanik.

Bestetik alkateak azatzen du prestatu dela esleipena egiteko plegua, Nafarroako Kontratazio Portalean iragarkia jartzeko. Alkateak azaltzen du hasiera batean ez direla denak esleipenera aterako 5 baizik. Interesdunak badaudela lursailen bat erosteko ere esaten du.

Hortaz bildutakoek aho batez plegua aztertu ondoren, erabaki hau hartzen dute: **Basaburuko iharduera ekonomikoen guneko 1. Faseko lursailen esleipenerako egindako plegua onartu eta Nafarroako Kontratazio Portalean argitaratzea agindu, 15 eguneko epean proposamenak aurkeztu ditzaten interesdunak.**

5.- Mozioak.

Jose Luis Estevezek aurkeztu du udalak onartzeko proposamenarekin, Pablo Gonzalez Yagueren egoeraren inguruko adierazpen instituzionala.

Irakurtzen da mozioa. Ondoren transkribatzen dena.

«Poloniako zerbitzu sekretuek atxilotu zuenetik, otsailaren 28an, Errusiaren inbasioaren eta Ukrainiako gerraren ondorio izugarriei buruzko informazio ematen Ponian zegoela, Pablo Gonzalez Yague kazetari Nabarniztarrak (Bizkaia) 550 egunetik gora daramatza prebentziozko espetxealdian, atzerriko indar batentzat espioitza lanak egitea egotzita.

Pablo Gonzalez isolamenduan dago Radomko espetxean, eta dagoeneko Lubril auzitegiak hiru hilabete behin luzatu du aurreneurritzko atxiloketa. Duela gutxi seigarren luzapena ekarri du. Pablo Gonzalez egunean 23 orduz egoten da bere ziegan itxita, kanpoaldearekin komunikatu ezinik. Patioara eskuburdinak jarrita ateratzen uzten dioten orduan bakarrik ikus dezake eguneko argia. Espioitza salaketaz gain, ez dia ezagutzea eman baieztapen horri eusteko dauden frogak, ezta zigorra behin eta berriz luzatzeko arrazioak ere. Egoera horri guztiari gehitu behar zaizkio

konfiantzazko abokatuen jardunari ezartzen zaizkion oztopoak, ezin baitute kausaren dokumentazio eskuratu. Gainera, Pablo Gonzalez isolatuta dago, senideek eta lagunek bisitatzeko aukerarik gabe.

Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketa horren aurrean, herrien subiranotasuna eta bakea defendatzen dugunok demokrazia, justizia eta prentsa askatasuna ere defendatu behar ditugu. Horrela Basburuko Udalak:

- Bere kezka azaldu nahi du, Pablo Gonzalz euskal kazetaria Poloniako agintarien behin behineko espetxealdia neurritz kanpo erailtzearen ondorioz jasaten ari den egoerarekin, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 47. artikuluan ezarritakoa urratuz.
- Bere desadostasuna adierazi nahi du Poloniako auzitegiaren erabakiarekin, eta Poloniako agintarien aurrean aldarrikatzen du Pablo Gonzalezen eskubideak errespetatu daitezela eta prozesu honetan zehar jasandako eskubide urraketek amaiara emango dien berme guztiak izango dituen prozedura bat baliatu ahal izatea.
- Pablo Gonzalezen atxiloteta eta espetxeratzea prentsa eta informazio askatasunarentzat albiste txarra dela adierazten du, eta hori oinarrizko bermeetako bat da gizarte asko eta demokratikoetan.
- Bideragabekeria krudel hori amaitzeko eta Pablo Gonzalez berehala aske uzteko eskatzen du.

Horregatik guztiagatik, Basburuko Udalak adierazpen instituzional hori berretsi eta argitaratu du, eta Poloniako agintariei heralzio dio Estatu Espainiarrean dituen ordezkari diplomatikoenak.

Bildutakoek onartzen dute aho batez irakurritako mozioa eta erabaki hau Poloniako agintariei helaraztea agindu Estatu Espainiarrean dituen ordezkari diplomatikoen bidez.

Gai ordenetik, hirigintza batzordean aztertu ondoren badago erabakitzeko gai bat, Nafar Gobernuak eta Orvek sinatu duten hitzarmenera udalak atxikimendua adieraztea, Nafar Gobernuak ingurugiro ebaluazio txostenak egin ditzan, hirigintza planeamendu espedienteen tramitazioaren baitan.

Bildutakoek aho batez gai zerrenda gaia aztertzea erabaki dute.

Orve eta Nafar Gobernuak sinatutako hitzarmenari atxikimendua adierazi, hirigintza planeamendua eta ingurugiro ebaluazioaren inguruko txostenen enkargua egiteko.

Alkateak azaltzen du orain arte Nafar Gobernuak egiten zituela ingurugiro ebaluazio txostenak hirigintza planeamenduko espedienteen tramitazioak hala eskatzen zuenean.

Urtea lege aldaketa batekin hasi zen eta bertan arautzen zen, txosten hauek udalek bere gain hartu behar zituztela, hots informe hauek egiteko kontratua kanporatu behar zuten udalean teknikorik ez bazuten. Legeak berak nabardura bat dauka non adierazten den 5.000 biztanle baino gutxiago duten udaletan, oraindik ere txosten horiek Nafar Gobernuak egin behar dituen. Hau aurrera eramateko, Orvek eta Nafar

Gobernuak lankidetzeta hitzarmen bat sinatu dute, Orverekin lan egiten duten udalek atxikimendua adierazten badiote hitzarmen honi, Nafar Gobernuak egingo dizkie ebaluazio txosetna.

Hortaz bildutakoek aho batez, ondoren zehazten den erabakia hartzen due:

- **Atxikipena adierazi Orve eta Nafar Gobernuak sinatutako hitzarmenari, eta honen bitartez eskatu Nafar Gobernuak hirigintza planeamenduarekin lotutako ingurugiro ebaluazio txostenak egitea.**
- **Erabaki hau Nafar Gobernuari helarazi.**

5. Batzordeen informazioa.

Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

PERTE programaren aurkezpena egin zen eta eskatu zitzairen uraren zikloarekin lotuta ze lan egin beharko liratekeen programa horretan argitaratu diren diru laguntzetan sartzeko.

Bestetik herrietako pisten erabilera arautzeko ordenantza proposamen bat ere aurkeztu zitzairen kontzejuei, ontsoen denboran arazoak izan dira kanpoko ibilgailuak pistetan sartu, kalteak egin zikinkeria utzi dituztelako.

Idea da herri guztietan ordenantza bera onartzea,

Hirigintza planaren inguruko batzordea eratu da 26 pertsona aurkeztu ziren parte hartzaile bezala.

Garapen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Elikadura mahairen bilera egin zen. Cedernak proposatu behar zuen 1. Sektoaren erreleboarekin lotuta, aukera ezberdinak jarraipena emateko, alokairu sistemen bidez eta abar..

Basaburua Ultzama Haritzen ZEC plana berritzen ari dira, eta 15 eguneko epea ireki da alegazioak egiteko.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa:

2023-2024 ikasturteko jantokiaren begiralearen kostea udalak bere gain hartuko duena 3.380 eurokoa izango da, Ausolanek bidaliko du faktua.

Garraioaren antolaketarekin lotuta, azaltzen du hiru zerbitzu pasatzen direla Basaburutik, bat Askatasuna ikastetxera doana, bigarrena Donapea- Alaitz ikastetxeetara eta azkena, Agroforestal, Virgen del Camino institutuera.

Kontua da goizetan autobusa 6.40etan ateratzen dela Basaburutik ikastetxeak 8:30etan hasten dituztenean haien klaseak.

Bueltan berdin gertatzen da, ia bi orduko ibilbidea egiten dute ikasleek etxera bueltatzeko.

Gainera ere bueltan Iruñetik berandu etortzen dira eta ez dira 15:23etan Latasara iristen hortaz udalak kontratatua duen zerbitzuak itxoin egin behar du ikasleak etxera eramateko. Baina zerbitzu honen beste ibilbide ditu ondoren eta ez badira garaiz iristen uko egin ahal diola zerbitzuari adierazi zion gidariak Alaia Etayori.

Kirol batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa:

Adinduen yogarako izena emateko epea bukatu ondoren 20 pertsonen izena eman dute, bi egunetan egingo da. Batzordean aztertu behar dute izena eman duen Larraungo pertsona baten kasuan zenbat kobratuko dioten tasa bezala, ez dagoenez erroldatua ez Basaburua ez Imotzen.

Bestetik Enduro proba ere aurten burutuko da eta prestaketekin hasiak dira.

Kultura eta Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Bertso afaria urriaren azken asteburuan burutuko da. Aurreko urtean bezala ostalariarentzat euskara ikastaro bat burutzea aztertzen ari dira batzordean.

Karpeta urdinak filmaren emankizuna burutu zen asteburuan.

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Mankomunitateko bilera burutu zen ordezkariak izendatzeko, lehendakaria eta lehendakari ordean Ultzamako udaleko ordezkariak izendatu ziren.

Gizarte batzordea osatzeko bilera burutu da ere eta 3 pertsona berri sartuko dira batzordean.

Bukatzeko urriaren 1ean Txokolatero etxearen aurrean omenaldi txiki bat egingo zaie bertako bizilagunei eta etxea erosi dela eta bertan adinduen eguneko zentroa egingo denaren ideia aurkeztuko da, hau guztia Nazioarteko Adinduen Egunaren baitan.

60 urtetik gorakoei gonbidapena luzatu zaie, emanaldia 12etan hasiko da, alkateak azalduko du proiektua, Angel Marticorena bertsoan ariko da eta Txokolatero etxearen aurreko aldean jarriko den kartelari estalkia kenduko zaio eta bukatzeko otamen bat jarriko da.

Komunikazio Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa:

Batzordea osatzeko bilera egin da. Udalak dituen sareak eta baliabideak zehaztu dira. Buletina berriro martxan jartzeko ideia aurrera eramango da eta horretarako Ametzari aurrekontua eskatuko zaio, ez hilabetero egiteko baizik eta hiru hilabete behin edo urtean bitan.

6- Informazio orokorra.

Urriaren 6an NUFK-en bilera egingo da legealdi aldaketaren batzordea orokorra eratzeke.

Iruñerriko Zaborren Mankomunitateko zonaldeko lehendakaria izendatu. dute Basaburu ko alkatea den Santos Etxegia. Zonaldea osatzen dute Imotz, Basaburua, Atetz eta Berriobeitik besteak beste.

Basaburua Imotz zerbitzu administratiboen elkartzeko lehendakaria ere izendatu da eta hasierako 2 urtetan Basaburuko Udaleko alkatea izango da, ondoren lehendakari ordea, hots Imozko alkatea izango da elkartzeko lehendakaria.

7. Erregu-galderak

Mikaela Elizalde galdetzen du nola dagoen Aizarotz kontzeju onartzearen espedientea. Alkateak azaltzen dio tramitazioa aurrera jarraitzen duela baina ezin onartu azaroko hauteskunde partzialetan bozkatzeko

Bukatzeko aipatzen du aizarotzen Naturgu empresak obra txiki bat egin duela eta abisatzeko etxeetan jarri dituen kartelak gaztelania hutsean zeudela, hurrengoetarako gutxienez elebiz jarri ditzatela eskatzen du.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:30 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.